

BALIO PROPOSAMENA

1. NORTZUK GARA?

Ikasle talde bat gara, eta gure ideia honela bururatu zitzaigun: batxilergoan oso zaila egiten zaigu dena eguneratuta eramatea. Apunteak hartzea, ikasteko metodoak ezagutzea eta antolatzea zaila egiten zaigu bai guri bai irakasleei ere. Beste ikasketa-aplikazioak erabili arren, askotan ez digute balio, apunte asko gaztelaniaz daudelako, ez direlako fidagarriak edo ez dutelako bat egiten gure metodologiarekin. Gabezia hori betetzeko erabaki genuen gure enpresa sortzea, KLIK izenekoa, gaur egun dena klik baten bidez lor daitekeela dioen metaforatik aukeratu genuen.

1.2 ZE ONDASUN EDO ZERBITZU ESKAINTZEN DIEGU GURE BEZEROEI?

Bezeroei, gure produktuaren bidez, gaur egun ezarritako hezkuntza-sistemaren hobekuntza eskaintzen diegu. Ikasleen ikaskuntza errazten dugu, baita ikasteko eta antolatzeko gaitasunak hobetzeko errekursoak ere. Irakasleentzako ordea, laguntza-teknikak eta baliabide dinamikoagoak izango dituzte, klaseak errazteko eta ikasleen arreta hobeto atzemateko. Dena aplikazio eta webgune sare baten bidez non denon eskura dagoen momentu oro.

Gure produktuak ondorengo balio proposamen hauek izango ditu:

Berritasuna: Produktua merkatuan badagoen arren, gurea berritzailea da, euskarazko edukien falta eta ikastetxeen arteko elkarlana konbinatzen dituelako. Aplikazio askok ez dituzte eskaintzen ez euskarazko eduki egiaztatuak, ez ikasleen arteko komunitate digital bateratua. KLIKASIk hutsune hori betetzen du eta hezkuntza-sare partekatu eta eguneratua sortzen du.

Prestazioak: Plataformak funtzio praktiko ugari biltzen ditu, eguneroko ikaskuntza eta irakaskuntza lana errazteko, hala nola, apunteak bilatu eta partekatu, ikasteko metodo desberdinak erabili edota antolaketa-tresna digitalak eskura izatea. Irakasleek eduki dinamikoak igo eta antolaketa laguntzen duten tresnak erabil ditzakete, denboraren kudeaketa optimizatuz.

Pertsonalizazioa: KLIKASIk erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitutako esperientzia eskaintzen du. Eduki gomendatuak ikasgaiaren, mailaren eta ikasteko estiloaren arabera antolatzen dira, eta horrek ikaskuntza eraginkorragoa bihurtzen du.

Lana erraztea: Plataformak ikasleen eta irakasleen lana sinplifikatzen du. Apunteak

bilatzeko edo antolatzeko denbora galtzea saihesten da, informazio guztia gune bakarrean dagoelako. Agenda digitalak eta gogorarazle automatikoek eguneroko lana eta ohiturak hobetzen dituzte.

Diseinua: KLIKASI diseinu garbia, modernoa eta intuitiboa du, erabiltzaile gazteentzako egokitua. Kolore argiak eta egitura bisual erraza ditu, nabigazioa azkartuz eta edukien kontsumoa erraztuz. Funtzionaltasuna eta erabilgarritasuna dira ardatzak.

Marka/Estatua: KLIKASI erabiltzeak hezkuntza-komunitate moderno eta berritzaile bateko parte izatearen sentsazioa ematen du. Ikasleek erakusten dute antolatuak eta konprometituak direla, eta ikastetxeek marka-irudi sendoagoa lortzen dute.

Prezioa: KLIKASI hasierako proba doakoa eskaintzen du, erabiltzaileek plataforma ezagutu dezaten. Ondoren, ikastetxeek kuota finko bat ordainduko dute, eta horrek ikasle eta irakasle guztiei sarbidea emango die. Ikastetxe publikoetan Eusko Jaurlaritzak bere gain hartuko du kostu hori; pribatuetan, ikastetxeak berak, diru-laguntzekin. Banaka ikasten duten ikasleek tarifa eskuragarri bat izango dute haientzako ere. Horrela, KLIKASI prezio inklusibo batekin eskaintzen da, erabiltzaile mota guztietara iritsiz.

Arriskuen murrizketa: Plataformak arriskuak gutxitzeko neurri sendoak hartzen ditu: edukien guztien moderazioa eta fidagarritasun-kontrola bermatzen da unibertsitateko irakasleen laguntzaz, informazio okerrik ez zabaltzeko. Gainera, datu-segurtasuna eta pribatutasuna lehentasun absolutuak dira; erabiltzaileen informazioa babestuta dago, eta iragarki arriskutsuak ez dira agertzen. Horiek guztiek erabiltzailearen segurtasuna bermatzen dute.

Eskuragarritasuna: KLIKASI edozein unetan, edozein lekutan eta edozein gailutatik erabiltzeko diseinatuta dago. Plataforma mugikor, tablet eta ordenagailuetan eskuragarri dago, eta beti funtzionatzen du. Horrela, ikastetxe handi zein txikiek eduki eta baliabide berberak eskuratu ditzakete, hezkuntza-berdintasunari bultzada emanez.

Erabilerraztasuna: Plataforma oso intuitiboa da eta erabiltzaile guztiek oso denbora gutxian ikas dezakete nola funtzionatzen duen. Hasierako tutorial laburrak eskaintzen ditu eta nabigazioa erraza da, menu sinpleekin eta klik gutxitan agertzen diren funtzioekin. Erabilerraztasun horri esker, erabiltzaileek ez dute denborarik galtzen, eta plataformak bere helburua bete dezake: ikastea erraztea.